

PALAS

hego-ekialdeko ertza

Juanma Peluaga eta Josu Barandiaran

PLAN ero guztiak sortzen diren bezala halaxe sortu zen hau ere. Nora joan?, zer egin?. Saltsa pixka bat nahi genuela eta badakizue: "liburu batean ikusi dut..."

FITXA TEKNIKOAK

Irteera:

Port d'Arrens-Maison du Parc (1470) -Arrensetik 10 kmtara.

Desnibela eta denborak:

- Aparkalekua-Larribet (595 m) 1ordu 45 min.
- Larribet-Lavedan (550 m) 2ordu 30min.
- Lavedan-Palas (360 m) 2ordu 30 min.
- Palas-Aparkalekua (1505 m) 3ordu 45min.

Zailtasuna:

Nahiko zaila (III -).

Materiala:

40 mtako soka, zinta luzeak, enpotradoreak eta kasko (azkenengo zatian harria oso hautsia aurkitu genuen).

Bibliografia:

"Pirineoak II" (238 ibil.) Miguel Angulorena

Partaideak:

Josu Barandiaran eta Juanma Peluaga (Irungo Mendizaleak) 1999ko ekainaren 11ean.

HALA eta hola Pont d'Arrenseko aparkalekuan agertu ginen ostiral arratsalde batean, gogoak nahi bai, baina adinak eta baldintza fisikoak galerazten diguten eskalatzailerean papera bete nahian.

Gaua heldu baino lehenago heldu ginen, laino artean, aterpera.

Bertakoek, aparkalekuan ikusi genuen gizonak berak eta bere emazteak, harrera ezin beroago egin ziguten guri arretra guztia eskainiz. Esan beharra dago, ere, ez zegoela beste inor gu ezik.

Aterpea txukuna, beroa, goxoa eta garbia zegoen eta segituan erakutsi zizkiguten gure tokiak.


Afaldu eta gizonak gogotik eman zigun hurrengo egunerako behar genuen xehetasun guztia.

Gu baietz, eskalatzailereana egiten, baina hari ezin engainatu.



GOIZ goizean, aterpekoak egindako krokisa poltsikoan ondo gordeta, abiatu ginen, oso ondo nondik joan jakin gabe, gaua zen oraindik eta bidea ikusterik ez bait zegoen.

Ordu bat beranduago, eguna argitzearekin batera etorri zitzaigun gozamina paisaiaren edertasunez gozatzuz.



HALA edo hola, orain kranpoiak jantzi, orain erantzi, orain nondik, gero handik Lavedaneko lepora heldu ginen. Han gure gainean zuzen zuzen ikusten genuen ertza. Ertzak berak esaten zigun: "kontuz txotxolo zuek, hau dakitenentzat bakarrik da". Guk une horretan beste zereginetan ari ginenez ez genuen entzun eta ero-ero abiatu ginen gora. Nik besteari: "hau erraza duk" barruko dardarak disimulatuz eta besteak niri: "hau oso erraza duk" berdin-berdin.




G IDALIBURUAREN fotokopiak zioen: "lehenengo jendarmea ezkerretik". Hostias, hi alde hori beltz-beltza eta

zut-zutik, gure gainean. Krokisak: "III", buruak: "8c". Total: "benga hi, tira aurrera nik bota lotu behar diat eta", "Ba ni ari nauk sudurra garbitzen, hi tira". Hantxe goaz, benga "8c" eta lotu gabe. Estuasunak estuasun aingeru goardakoak ordu extrak egiten ari omen eta igotzeko modua



aurkitu genuen. Beldurrak eta buruak esan ziguten ozenki: "atera soka!" eta honetan bai entzun genuen. Behin lotuta berriz ere komeriatan, "hi tira hadi, beste bota lotu behar diat", "ez, ez hi tira hadi ilea orraztu behar diat eta".

D ELAKO terrases-etatik gora diedro bat, gero ezkerretik joan ezker "V". Gu noski eskubitik "III". Bainan nonbait galdu eta gure "bariantea" asmatu genuen bertan, ensemblen eta harkaitz txarrean. Berriz ere buruak: "hau 8c" eta logikak: "III".



EGLEEN ARGATEKAK

H ORTIK aurrera ertzatik tontorrera.

"Jartzak automatikoa eta atera argazkia sokak-eta kendu baino lehen!" Bapatean elurra ari. "Tira goazen behera", "eh txikito hortik ez!", "baietz!", "ezetz!". Atera mapa eta egia, gidaria konfundituta, gidariari titulua kendu, jaitsi maila eta paga dezala isuna.

Atzera joan behar da pixka bat eta hartu Hego-Mendebaldeko ertzaren bidea. Bidea delako couloir batetik jaisten da. Elur maltzurra ez zapaltzeagatik arroketatik jaitsi ginen, eta zalantzak izan banitu jarraitu beharreko bideari buruz lagunak botatako harri haundiak, nire ondotik pasa zenean, ederki erakutsi zidan nora jo. Hortik ezkerretara ertzaren gainean eta gero Ledormeur tximiniatik behera "II".



B ESTERIK gabe eta Lavedaneko lepotik Arrieleko lakuetarara begirada azkar bat eman eta gero, beheruntz abiatu ginen. Batcrareko lakuetaraino elurretan irristatuz eta hortik aterpera oinez.

Hauexek izan ziren bi sasi-eskalatzaileen komeriak. Eta untxia? Aterpekoen maskota, egun horretako gure laguna. □

